



Maritxu eta Erramun

Baztanen da Arizkun, Senperen Ibarrun (Bis)
Zorionean daude:Maitxu eta Erramun
Urrezko eztei hauek(Bis) ospatzen egun(Bis)
Gure bihotz guziaz goretsi dezagun(Bis)

Ibarrundar gazte bat: Erramun deitua(Bis)
Bihotza alegera, langile kartsua
Bizi lagunarentzat(Bis) in zuen hautua(Bis)
Zugarramurdin Maitxu, Arizkunen sortua (Bis)

Elgar maitatu zuten, bai eta ezkondu (Bis)
Familia ederra, hoik dute izatu
Hurrek beren aldean, hautatuak hartu(Bis)
Guzien batasunak, goresmen hartze du (Bis)

Maitxu eta Erramun, gaur zorionean (Bis)
Zaudezte hola hola zuen egoitzean
Beti azkar egonez (Bis) osasun onean (Bis)
Omorearen jabe, goxotasunean (Bis)

Jan Pierre SOUDRE (Ixtilarte)
Airea: Ziburutik Sararat

Euskal Herriko pilotariak

Arce gure plazetan zoin den xoragarri
Berdin xarmegarria Leonis jaun hori
Aurtengoan xampion zerauzkigu
Nagusiturik Dongaitzar osaba iloberi.

Lan horien ondotik bi Ezpeletarrak
Darraidon-Haranbillet jokari ederrak
Jan Batit Isidoro gero Dongaitzarrak
Ernest-ek ere nahiko segitu osabak.

Iztuiztarrek Durruty, Xalet Hazparnetik
Bidarrai Orekarre, Klabori Kanbotik
Saratik Inazio, Salinas nonbaitik
Paregabeko Puxant, Suarez geroztik.

Larralde, Iratzoki, Urria, Antxaño
Goietxe ta Aintziart, Panpo, Teodoro
Lekorneko Xemartin bertze gazte frango
Guziak aipatzeko lekua nuke eskasko.

Jan Pierre SOUDRE (Ixtilarte)
Airea: Haurrak ikas zazue
Pierrot BORDAK kantatua.

Irundik Donibanera

Dotzen erdi bat pertsu dudarikan gabe
Dama gazte horientzat komedi badire
Irunen zerbitzari zinauden herabe
Bainan Nafarroako alaba zirade.

Irundik Donostira bueltan Donibana
(banera)
Barber eta mediku adituen gana
Arribatu zeneko zer daukazu dama
Operazio on bat egidazu jauna.

Huna mediku jaunak erran dion hitza
Erremedio bilan zertako zabilta
Barreguen galtzeko etsaiak dabilta
Laster sendaturen da zuk daukazun gaitza.

Egun batez Irundik dam-hori galdu zen
Umea egin omen du San Juan de Luz-en
Hazia erein eta fruitua sortu zen
Haren kontserbatzera entseia gaitzen.

Irungo apez horrek semetto bat badu
Osaba erraiten dio berak hala nahi du
Ederki errana da konprenitzen badu
Aitak meza eman eta semeak lagundu.

Paxkal MENDIBOURE-k kantatua.